itzulpena: Gerardo Markuleta

Angel Gonzalez

Munduko
Poesia
Kaierak

Angel Gonzalez

itzulpena: Gerardo Markuleta

Liburu honen salneurria: 3 € + BEZ.
Ordainketa egiteko, edo liburu gehiago eskuratzeko:
http://susa-literatura.com/ebook

© Angel Gonzalez
© itzulpenarena: Gerardo Markuleta
© edizio honena: Susa

2016ko martxoa

Munduko Poesia Kaierak
bildumaren zuzendaria: Beñat Sarasola
http://kaierak.com

Susa: 317 posta kutxa / 20800 Zarautz
Adoain Aita 92 / 31015 Iruñea
Zubitalde 21 / 48195 Larrabetzu
Telefonoa: 943 83 26 55
Elektroposta: susalit@armiarma.eus
Webgunea: http://susa-literatura.eus

Ez dira ugariak, ziur aski, irribarrea eragiten duten poetak. Angel Gonzalezek esango lukeen bezala, gehiago dira izarrei begira idazten duten poeta zuhurrak. Gizakiei begiratzeak dakar, haien miseriekin topo egitea bezala, haien baldarkeria komikoa ezagutzea ere. Nora begiratu, hala idazten omen du poetak, eta Gonzalezek begirada izarrartetik beheititu eta zuzenki egiten zion so gizakiari.

Agindua izeneko poeman aurkeztu zuen poetika hori, zeru-goietan zebiltzan poetei jaurtitako eztenkada ironikoa. Lehen liburua, *Áspero mundo* (Mundu zakarra), 1956an argitaratu zuen, eta luze gabe hamarkada horretan Espainiako poesian gailendu zen poesia sozialaren poeta multzoan kokatu zuten kritikariek. Pare bat hamarkada aurrerago *novisimos* delakoak modan jartzerakoan idatzi zuen hain justu arestian aipatutako poema, eta sorta bereko beste pare bat, *Kontragindua* —eguneroko objektu arruntekin ondutakoa— eta *Poetika 4* —kasik txiste bat, Markuletak artez euskal testuingurura ekarria—.

Sozialtzat jo izan diren beste poeta zurrun batzuen aldean, ordea, arnasa zabalago bat sumatzen zaio Gonzalezen poesiari, neurri batean ironiak ema-

ten dion distantzia horretaz baliaturik. Maiz, ironia bere buruari atxikitzen zion gainera, bere poema famatuenetako batean —*Nire izena Angel Gonzalez izan dadin..*— agerikoa denez.

1925ean Oviedon jaioa, gaztetxo zela harrapatu zuen 1936ko gerrak. Guda hark —edo hobeki esanda, faxisten bandoak— eraman zion anaia Manuel. Anaiaren galerari buruz idatzi zuen guda hari buruzko poema batean: “Galdutakoa betiko galdurik, / hildakoa atzean gelditu zen behin betiko / hilik”. Gerraz ez ezik gerraostearen hoztasunaz ere idatzi zuen, hezurretaraino sartzen diren poema bateko lehen bi lerroek ondo adierazten duten bezala: “Hemen, Madrilen, mila bederatziehun eta / berrogeita hamalauan: gizon bat bakarrik”.

Gazterik zaletu zen literaturara, besteak beste tuberkulosi baten ondorioz ohean egon zen denbora luzeko irakurketei esker. Gaitz hartatik nekez osatu ostean, zenbait kafe-etxetako literatur tertulietara joaten hasi zen. Oviedoko Café Rialtora lehenik —nora, esate batera, Carlos Bousoño joaten zen— eta urte zenbait geroago, baita Madrilgo Café Gijón sonatura ere. Bousoñoren ezagutzea funtsezkoa izan zen Gonzalezen hastapenetan, hark adoretuta argitaratu bai-

tzuen lehen poema liburua. Haren bidez ezagutu zuen halaber Vicente Aleixandre, garaiko poeta espainiar garrantzitsuenetakoa, eta hark bidea eginda lortu zuen Bartzelonan 1955ean zenbait editorialetako zuzentzaile gisako lana. Egonaldi hartan ezagutuko zituen Bartzelonako Eskola izenez ezaguna den idazle taldea: besteak beste, Jaime Gil de Biedma, Jose Agustin Goytisolo eta bilduma honetako beste poeta bat ere: Gabriel Ferrater.

Gonzalezen poesigintzako ildo nabarmen bat da maitasunezko poemena. Horixe aurkitzen dugu *Heriotza ahanzturan*-en adibidez, fenomenologiaren ideiez baliatuz idatzitako poema, edo *Maitasunezko urtebetetzea* izeneko poema biribilean. Beste ildo bat da gauarekiko liluratik idatzitako poemena. Gauak Gonzalezentzat “normala denaren etena” esan nahi zuen, eta bere burua “gautar” gisa definitu zuen *Gaur* poeman. Ez zuen, beraz, sekula ezkutatu izan gaua eta alkoholarekiko jaidura, eta etxepean zuen Oliver taberna sarritan ixten zuen auzoetakoa zen.

Plazer handiena ematen zion egintza ezer ez egitea zela adierazi zuen inoiz, eta erretiroari, beraz, ez ziola inolako beldurrik. Gaur egungo modako hitza erabiltzearren, prokrastinatzaile militantea izan zen:

“Utz ezazu biharko / (atzo, ez jakin nola, hasi eta) / gaur egin zenezakeena”. Oi gure Axular zaharrak burua altxatuko balu!

Beñat Sarasola

Izan zintudan...

Izan zintudan
leuna
zinenean,
mundu laztandua.
Errealitate ia hodei,
nola alde egin zenidan besoetatik!

Orain berriro sentitzen zaitut.
Argiagatik ez, azalagatik
sumatzen dut zure presentzia
ezin nahasizkoa.
...ertz garratzak, meridiano gogorrak,
mundu latza nire bi eskuetarako!

[nire izena
Angel Gonzalez
izan dadin]

Nire izena Angel Gonzalez izan dadin,
nire izateak zoru gainean pisua izan dezan,
beharrezkoa izan zen espazio zabal bat
eta denbora luzea:
itsaso eta lur guztietako gizonak,
emakume sabel emankorrak, eta gorputzak
eta gorputzak, etenik gabe beste
gorputz batean bat eginez.
Hainbat solstiziok eta ekinokziok argiztatu zuten,
beren argi aldakorraz, beren zeru askotarikoaz,
nire haragiaren milaka urteko bidaia,
mendeetan eta hezurretan gora.
Azkenerainoko ihesaldiaren
igarotze geldo eta mingarritik,
hondoratzeetatik bizirik atereaz, hildakoen
azken hatsari eutsiz,
ni ez naiz emaitza baino, fruitua,
hondakinen artean, usteldurik, geratzen dena;
hemen ikusten duzuen hauxe,

honako hau baino ez:
zabor nekaezin bat, bere hondamenari
aurka egiten, haizearekin borrokan,
inora ez daramaten bideetatik
aurrera. Porrot guztien
arrakasta. Etsipenaren
indar erotua...

[hemen, Madrilen, mila bederatziehun eta]

Hemen, Madrilen, mila bederatziehun eta
berrogeita hamalauan: gizon bat bakarrik.

Otsailez beteriko gizon bat,
igande argitsuz gose,
martxorantz ibilian pausoz pauso,
haizearen eta zeruertz gorrien
martxorantz —eta duela gutxiko udaberrirantz,
jada apiril euritsuaren mugan—.

Hemen, Madrilen, tranbia eta
errainu artean, gizon bat: gizon bat bakarrik.

—Geroago etorriko da maiatza, eta ekaina ondoren,
eta gero uztaila eta, azkenik, abuztua—.

Gizon bat, urtebete daukana ezertarako ez,
denerako daukan asperduraren aurrean.

Urtebetetzea

Igarri egiten dut nola bihurtzen naizen
lausoago, nahasiago,
eguneroko airean
deuseztatuz, neure buruaren
piltzar, zirpildua
eta urratua eskumuturretan.

Ulertzen dut: beste urtebetez
bizi izan naiz, eta oso gogorra da hori.
Bihotza egunero mugiaraztea
ia ehun aldiz minutuko!

Urtebetez bizi izateko, beharrezkoa da
askotan asko hiltzea.

Hori ez da ezer

Indar nahikorik bagenu
egur puska bat behar bezala estutzeko,
esku artean bakarrik geratuko litzaiguke
lur apur bat.
Eta are indar gehiago bagenu
lur hori guztizko gogortasunez
estutzeko, esku artean
bakarrik geratuko litzaiguke ur apur bat.
Eta artean ere
ura estutzea posible balitz,
orduan esku artean ez litzaiguke geratuko
ezer.

Heriotza ahanzturan

Nik badakit banaizela
zuk imajinatzen nauzulako.
Luzea naiz zuk luzea naizela
uste duzulako; eta garbia, begi onez
begiratzen didazulako,
begirada garbiz.
Zure adimenak adimentsu
egiten nau, eta, zure samurtasun
xaloan, ni ere xaloa naiz,
eta onbera.
Baina, ahazten banauzu,
hil egingo naiz, guztien
oharkabean. Bizirik ikusiko dute
nire haragia, baina beste gizon bat izango da
—iluna, traketsa, gaiztoa— haren barruan...

[zuek guztiok zoriontsu ematen duzu]

...eta irribarre egiten duzue, batzuetan, hitz egiterakoan.
Bai eta elkarri
amodiozko
hitzak esaten ere. Baina,
maitatu,
binaka maite duzue elkar;
eta elkar gorrotatu,
milaka. Eta, nazka,
tonaka biltzen duzue
zorion milimetro bakoitzeko.
Eta ematen duzue —eman
baino ez— zoriontsu,
eta hitz egiten duzue
ezinbesteko
garraztasun hori ezkutatzeko,
eta zenbatetan ez ote duzue
huts egiten, nik neuk
luzaroago
ezkutatzerik ez daukadan bezala:

edozer dela-eta atsekabe etsigarri, antzu, luze, itsu hau, geldo –jakin ez nora—, arrastaka naramana.

Probintziako hiriburua

Teila zikin eguzkitsuen hiria:
ia egiazko zara, ozta-ozta habia,
zurrumurru bat ez besterik, belaze
berde harrituek isuritako kea.

Gero badira gizonak, bizitza estutua
zure patu ia eraitsiari atxikiak,
eta zarata artean hazten diren neskatxak,
amodio artean ereinda baleude bezala.

Ia guztiei samurki egiten diet so,
eta agureek zure aldiriak alaitzen dituzte
beren adats urdindu bihurriekin.

Ni pozik nago, eta, txera handiz,
zaldi gris nahi zintuzket,
hanketan txapaka egiteko.

[ibai bat igarotzen da hemendik]

Ibai bat igarotzen da hemendik.
Hemendik joan ziren
zure oinatzak hareak edertzen,
urak argitzen,
errekarriak leuntzen, azuzena
xarmatuei
barkatzen…
Ez zoaz zu ibaitik:
ibaia dabilkizu
atzetik, zuregan ispilu bila,
zure bizkarrean bere buruari begira.

Bizkor bazoaz, arinago dabil ibaia.
Poliki bazoaz, mantsotu egiten da ura.

Hiria

Gauzak dirdaika. Teilatuak haziz
zuhaitz adaburuen gainean.
Hausteko puntuan, tenkaturik,
kale elastikoak.
Hor zaude zu, kable metalikoen
gurutzune horren azpian:
eguzkia zure irudiaren argi-koroa
osagarri baten gisa mamitzen den lekuan.
Enara bizkorrak mehatxuka
etxe-aurre ikaragaitzei. Kristalak
mezu argitsu isilpekoak
igortzen.
Oro da keinu labur,
ohiko begietarako ikusezin.
Eta, bat-batean, ez zaude. Agur, maite, agur.
Dagoeneko joan zara.
Zugandik ez da deus geratzen. Hiria biraka:
guztia desegiten duen errota.

Garaitua

Atzean gelditu ziren hondakinak:
zure etxearen puskak ke jario,
suak hartutako udak, odol lehortua,
eta haren gainean grinatzen da —azken putrea—
haizea.

Zuk bidaiari ekiten diozu, aurrerantz, arrazoiz
etorkizun deitzen duten garairantz.
Ezein lur
ez baitaukazu;
ezein aberri ez baita,
ezta sekula izango ere, zurea;
ezein herritan ezin izango baita sustraitu
zure bihotz inor gabea.

Ezin izango duzu sekula —eta hain da erraza—
burdin langa bat ireki,
eta, besterik gabe, esan: “egun on,
ama”.
Nahiz eta, izan ere, eguna ona den,
larrainetan garia egon,

eta zuhaitzek
beren adar nekatuak zuregana
zabaldu, eta fruituak edo gerizpea
eskaini, atseden har dezazun.

Gudu zelaia

Gaur gudu zelaia dut
deskribatuko,
nik ikusi bezala, behin erabaki ostean
borrokatu ziren gizonen patua,
batzuk hil arte,
beste batzuek
artean bizirik iraun arte.

Ez zen aukerarik izan:
ahal izan zena, hil egin zen;
hil ezin izan zenak ibilian jarraitu zuen;
zuhaitzek fruitu geldoen elurra eskaini zuten;
uda zen, negua, urtebete oso bat
edo gehiago beharbada: bizitza
osoa,
borroka egun erraldoi hura.

Mendebaldetik odola zekarren haizeak,
ekialdean lurra errauts,
iparralde osoa
burdin hesiz eta oihuz

inguratuta zegoen,
eta bakarrik hegoaldea,
hegoaldea
baino ez,
eskaintzen zitzaigun begietara zabal eta aske.

Baina ez zen hegoalderik:
ez urik, ez argirik, ez itzalik, ez errautsik,
haren hutsunea, haren hondo hutsa betetzen:
hegoaldea jausleku itzela zen,
amildegi amaigabea; handik,
poliki,
putre ahaltsuak goraka.

Inork ez zuen entzun kapitainaren ahotsa,
kapitainak ez baitzuen hitzik egiten.
Inork ez zituen hildakoak lurperatu.
Inork ez zuen esan:
“emaiok hau nire neskalagunari, egunen batean
topo eginez gero”.

Bakarrik, zaldi bat akabatu zuen baten batek,
sabela irekita,
hil-hurren baitzegoen,

eta itzalpeko airea betetzen baitzuen bere laborriz:
gauak mehatxatzen zuen airea.

Geldirik, lur gogorrari
itsatsita,
izuaren eta ezerezaren artean harrapaturik,
gizonak azken unearen
zain zeuden,
aurka egin gabe jada,
errebeldiarik gabe.

Batzuk hil egin ziren,
esan bezala;
eta gainerakoak, etzanda, eraitsita,
lurrarekin bat eginda bakean azkenik,
ez dakit zeren
zain dauden
—beharbada norbaitek esan arte:
“lagunok, joan zaitezkete, borroka...”.

Bien bitartean,
uda da berriro ere,
eta garia hazten ari da
gudu zelai zabala izandako lekuan.

Atzo

Atzo asteazkena izan zen goiz guztian.
Arratsaldean aldatu, eta
ia astelehen jarri zen;
tristurak bihotzak hartu,
eta izu-ikarazko mugimendu argia gertatu zen
bainulariak ibairaino daramatzaten
tranbietarantz.

Zazpiak aldera, hegazkin txiki batek
zerua zeharkatu, eta haurrek ere
ez zuten begiratu.
Hotzera
jo zuen,
kapela jantzita kaleratu zen norbait,
atzo, eta egun osoa
berdina izan zen,
horra hor
zeinen dibertigarria,
atzo eta beti atzo eta horrela orain arte,
kalerik kale ibilian beti
jende ezezaguna,

edo bestela etxe barruan askarian
ogia eta kafesnea, hau
poza!

Gaua goiz iritsi, eta piztu ziren
kale-argi hori beroak,
eta inork ezin izan zuen
eragotzi urra zedin azkenik
gaurko eguna,
hain antzekoa
baina
hain ezberdina argiz eta lurrinez!

Horrexegatik,
diotsuedan moduan delako,
utzidazue hitz egiten
atzoko egunaz, beste behin ere
atzoko egunaz: inork
lur gainean sekula berriz
ikusiko ez duen egun paregabeaz.

Etorkizun

Etorkizun deitzen dizute
sekula ez zatozelako.
Etorkizun, deitzen dizute,
eta zain geratzen zaizkizu
animalia otzan baten gisan
beren eskutik jatera noiz etorriko.
Baina zuk orduetatik harago
irauten duzu,
jakin ez non, kukuturik.
…Bihar!

Eta bihar beste egun lasai bat izango da,
gaurkoa bezalako egun bat, ostegun edo asteartea,
edozer gauza, baina ez
espero dugun horixe, oraindik espero ere, oraino,
beti.

Amodiozko urtebetetzea

Zer-nolakoa izango ote naiz ni
jada ni ez naizenean?
Denborak
nire egitura aldatu,
eta nire gorputza beste bat denean,
beste bat nire odola,
beste batzuk nire begiak eta nire ileak.
Zurekin gogoratuko naiz, beharbada.
Ziur aski,
hurrenez hurreneko nire gorputzek
—bizirik, heriotzarantz, iraunarazten nautela—
eskutik eskura pasako diote elkarri,
bihotzetik bihotzera,
haragitik haragira,
alde egiten duzunean
tristura eragiten didan
zer misteriotsua,
zure bila itsu bultzatzen nauena,
ezinbestean
zure ondora naramana:
jendeak maitasuna deitzen duen hori, azken batean.

Eta begiek
—zer axola du begi hauek ez izatea—
zoazen lekura jarraituko zaituzte, fidel.

Gazteentzako mintzaldia

Zuongandik,
gazteok,
ez dut zuen arbasoek egin
baino balentria gutxiagorik espero.
Herentzia izugarria
uzten dizuet:
eutsiozue.
Babestu odol
ibai hori,
esku ziurrez
heldu
joandako
mendeen zama
herrestan kementsu daramaten
zaldi zahar-zahar baina
oraindik ahaltsuen taldeari.

Gu, hemen bilduta
gaudenok gara,
eta bost axola gainerakoak.

Zu, Harri,
Pedroren seme, Harriren
biloba
eta Pedroren birbiloba,
ahalegindu zaitez, bizi zaren artean, harri izaten,
Pedro Petrifikatu Harri Zuria izaten,
mugimendurik ez onartzen,
arnasa hartzen edo taupada egiten duen guztia
molde hertsietan itotzen.

Zuri,
adiskide fidel,
arma lagun,
ezkutari,
gure loriaren sostengu,
oliba kolorez jantzitako goiaingeru
eskuadroietako alfereza,
badakit ez dela beharrezko ohartaraztea:
su eta burdina izaten jarraitzearekin,
nahikoa.
Sua, loratzen dena erretzeko.
Burdina, altxatzen dena zapaltzeko.

Eta, azkenik,

zu, urrearen
eta lurraren jabea,
gure bizitzaren bultzatzaile boteretsua,
ez iezaguzu sekula huts egin.
Eskuzabal izan zaitez
behar dituzunekin,
baina bereizi,
bota itzazu zure erresumatik,
zure mugetatik harago atxiki,
beharrezkoa bada
utz itzazu hiltzen,
ameslariak,
argia eta egia besterik
bilatzen ez dutenak,
umil izan beharko liratekeen baina
batzuetan izaten ez direnak, halaxe kontuak.

Zuetako norbaitek
pentsatuko balu,
esango nioke: ez pentsatu.

Baina ez da beharrezkoa.

Segi horrela,

ene haurrok,
eta bakea eta aberri zoriontsua
agintzen dizkizuet,
ordena,
isiltasuna.

Animalientzako alegiak. Sarrera

Mende askoan,
ohikoa izan zen
gizakiari animalien istorioen bitartez irakastea:
ahots askojakineko, hotsandiko manera
edo amarru maltzurrekiko animaliak,
gaiztakerian eta diru-gosean egoskorrak,
edo hizpide hartzen zuten izakia bezain ergelak.
Gizateriak bere bertute eta jakituriaren
zati bat zor die
asto eta lehoi, arratoi, bele,
azeri, hartz, txitxar eta beste zomorro batzuei,
eredu eta erakutsi gisa balio izan baitzieten,
akuilu gisa ere bai, eta besteren,
animalien buruetan zentzagarri,
bai greziar irudimentsu eta sotilari,
bai erromatar zorrotzari, bai europar
mokofinari,
mendebaldeko gizakiari, urrutira jo gabe.
Gaur nahi dut —eta barka hantustekeria—
adimengabeen sailarengandik jasotako

horrenbeste ondasun berdindu,
giza portaeraren zantzu adierazgarriren bat,
zertzeladaren bat deskribatuz,
beharbada hezigarri gerta baitaiteke
hegazti eta arrainentzat,
zelenteratu eta ugaztunentzat,
egokia hala ameba
soilenarentzat
nola edozein espezie ornodunentzat.
Gure gizartea helduarora iritsi da jada,
jada gizakiak atzean utzi du nerabezaroa
eta, bere zahartzaro mendebaldarrean,
ondo balio diezaioke etsenplu gisa txakurrari,
txakurra izan dadin
txakurrago,
eta azeria traidoreago,
eta lehoia basatiago eta odolzaleago,
eta astoa, astoa omen den bezalakoa,
eta idia uzkurrago eta ez hain zezen.
Piztia gisa hobetu nahi duen
edozein piztiari
—izan helburu
gerrazale edo bakezaleekin,
izan finantza edo teologia asmoekin,

edo, besterik gabe, musutruk—
aholku hau emango diot etengabe:
homo sapiens-ari begiratu, eta ikasteko.

Aho batez hautatua

Bai, gaizki-ulertu bat izan zen.
Oihukatu zuten: hautestontzietara!
eta hark ulertu: armak hartzera! —edo hori esan
zuen gero.
Buruharrotasun handikoa izanik, asko hil zuen.
Pistolaz, erriflez, dekretuz.

Ezpata zorroraturik, esan zuen, dio:
Demokrazia ezin hobea da.
Jendeak txalo jo zuen. Isilik iraun zuten bakarrik
hildakoek, zirkinik ere egin gabe.

Bete egingo da herriaren borondatea.
Ordu honetatik aurrera —isilunea—,
Nagusia izango naiz, nahi baduzue. Konforme
ez daudenak, altxa eskua.

Hilotz gehiengo geldiak
agintea eman zion hilerri osoaren gainean.

Nahikoa zait horrela

Ni Jainkoa banintz
eta sekretua baneuka,
zure modu-moduko izaki bat
egingo nuke;
probatu
(okinek ogia probatzen duten erara
probatu ere, hau da:
ahoarekin),
eta zapore hori
zurea bezalakoa balitz, esan nahi baita,
zure lurrin bera, eta irribarre egiteko
zure modua balu,
eta isilik egotekoa,
eta niri bostekoa estutzeko modua,
eta elkarri musu ematekoa, minik gabe
—horretaz bai ni seguru: horrenbesteko
arreta jartzen dut musu ematen dizudanean—:
orduan,
ni Jainkoa banintz,
behin eta berriz egingo ahal zintuzket,
beti bera eta beti ezberdin,

jolas berarekin sekula nekatu gabe,
izan zinena arbuiatu barik
laster batean izango zinenarengatik;
dagoeneko ez dakit ulertzen zaidan, baina
azaldu nahi dut ni Jainkoa
banintz, ahalegin guztia
egingo nukeela Angel Gonzalez izatearren,
maite zaitudan bezala maitatzeko,
lasai itxaroteko
egunero zeure burua sor dezazun,
goizero ustekabean harrapa dezazun
argi jaio berria zeure
argiarekin, eta
loa eta bizitza bereizten dituen
errezel ezin hautemanezkoari tira egin diezaiozun,
zure hitzekin berpizten nauzula,
Lazaro alaia
ni,
oraindik ere itzalez
eta nagitasunez bustirik,
harriturik, zur eta lur begira,
nirekin batera berreskuratzen eta
salbatzen duzun guztiari,
eta gero, isiltzen zarenean, mugitzen

eta bertan behera uzten duzunari...

(Zure isiltasuna entzuten dut.

Entzuten

izar-multzoak: existitzen zara.

Zugan sinesten dut.

Bazara.

Nahikoa zait.)

Hitz alferrikakoak

Batzuetan gorroto dut ofizio hau:
hitzen espioi, bila dihardut,
bila
zu zaren hori, zehatz, adieraziko duen
berba iheskorra,
esamolde ezegonkorra.

Ezerezean geldi, bizitzatik
bazter (isiltasun sakonean
murgildurik, nire odolaren taupadek
baino ez hautsian)
bila dihardut,
bilatzen
existitzen ez diren hitzak
—beharbada baliozkoak dira: zure lepoaren
gozoa...—,
zu ukitu gabe jazarri, eta hiltzen direnak;
benetan, ordea,
zure leporaino iritsi
nahi nuke ahoaz
—edo akaso: musukatu dudan irribarre

sinestezina…—,
zure ahoraino igo
nire ezpainez,
eskuekin zure burua heldu,
eta han, zure begien hondoan,
neureak itxi baino lehentxeago,
bake berdea eta argi lokartua,
itzal argiak ikusi
—beharbada
hobe nuke esan: kea arratsaldez,
udazkenari darion musika lausoa,
harana poliki hartzen duen lainoa—
niregana hurbilduz,
jiratuz,
nire baitan sartuz,
harik eta nire bularra urpetu, eta nire
bihotz salbatua altxatu arte, onik, zintzilik
zorionaren apar arinaren gainean.

Amodio-leku aproposen inbentarioa

Gutxi dira.
Udaberriak ospe handia dauka, baina
uda hobea da.
Bai eta udazkenak, igandeekin
gurutzatzean, sortzen dituen arrakala horiek ere,
berez platanoak
bezain horiak diren hirietan.
Neguak leku asko baliogabetzen du:
ipar aldera ematen duten ate-erroak,
ibai bazterrak,
jarleku publikoak.
Eliza zaharretako
kanpoko horma-bularrek
hutsarteak uzten dituzte batzuetan,
elurra ari badu ere erabilgarriak.
Baina desengaina gaitezen: tenperatura
hotzek eta haize umelek
dena nekezago bihurtzen dute.
Ordenantzek, gainera, debekatua dute
laztana (salbu eta

atal epidermiko jakin batzuetan
—inolako interesik gabeak—,
haur, txakur eta bestelako animalietan)
eta hamaika begiradatan irakur daiteke
“ez ukitu, ohorea galtzeko arriskua”.
Nora ihes egin, orduan?
Nonahi begi ezkelak,
kornea torturatuak,
begi-nini errukigabeak,
begi-sare uzkurrak,
zelatan, mesfidantzan, mehatxuka.
Bakarrik ibiltzea geratzen zaigu beharbada,
arima samurtasunez hustu,
eta asperduraz eta ezaxolaz betetzea,
garai etsai, gorrotorako apropos honetan.

Larunbatetan, prostitutak goizean goiz jaikitzen dira, prest egoteko

Elena ordu biak eta bostean esnatu zen;
kontraleihoak poliki zabaldu,
eta neguko eguzkiak begi
gorrituak zauritu zizkion. Kopeta
kristalean bermaturik,
kalera begiratu zuen: haurrak bufandarekin,
txakurrak. Hiru apaiz
paseoan.
Une horrexetan,
Dora galtzetak
janzten hasi zen.
Galtzariek seinalea uzten zioten
hotzak zurtutako izterretan.
Irratia piztean —“Aida:
garaipen martxa”—,
hitz batzuk gogoratu
—“Dora, Doratxo, maite zaitut”—,
eta atzo goizaldean —hau da, gaur—
alde egindako

gizon haren begitartea
berreraikitzen saiatzen zen aldi berean,
eta oharkabean txanpon bat irakurtzen zuen:
“Hogeita bost pezeta” “…Jainkoaren
amoreagatik”
(Eta oheagatik).
Hirurak eta hamarrean Conchitak
masailetako zimurrak
lisatzen zituen
ispilu aurrean. Aharrausi egin zuen. Axolagabe
begiratzen zuen bere begitartea.
Hiru ile urdin aurkitu zituen
bere adats horiaren
sustrai ilunetan. Gero, krema arrosazko
kutxa bat ireki, eta haren barrukoa
igurtzi zuen sudurraren inguruan. Aharrausi egin,
eta keinu
zehatzezin hura baliatu zuen
txantxarrak jotako hagin baten
egoera egiaztatzeko,
han, bere ahutz lehor,
kaltegabe, uher, gibel-gaixo samarren hondoan.

Bestalde,

hiria ere
prestatzen ari zen.
Hamalauak eta hogeita hemeretziko trenak
kaleetako erritmoa aldarazi zuen. Begirada
zalantzakorrek, begi
nahasiek, galdera zehaztugabeak
egiten zituzten, ahoak egiten
ausartzen ez ziren galderak.
Kafetegietan, gizonak sartu-
irtenean, itxaropen halako batek
bultzaturik.
Goiz omen zen oraindik. Baina
lauretan, Dora galtzetak
kentzen hasi zen —galtzariek
seinalea uzten zioten
izterretan—.
Geldo, hotsandiko, elizako
dorreetatik hegaldatzen ziren
usoak eta kanpaiak.
Gona
jaisten zuen bitartean,
Conchitak bere gorputza ikusi zuen
—eta beste itzal lauso bat—
bere logelako ispiluan

mugitzen. Kale-enparantzetan
abenduko arratsaldea zurbiltzen ari. Elenak
kontraleihoak itxi zituen poliki.

Isilune baterako atarikoa

Horrenbeste gauza ezertarako ez dela jakitun,
batzuetan —udan— norbera zuhaitz baten gerizpean
lasai eseri,
eta isildu egiten da.

(Lasai esan al dut?: gezurra, gezurra:
norbera urduri esertzen da, imintzio bitxiak eginez,
udazken goibel baten amorruak
lurrera botatako hostoak zapalduz,
pospolo-kaxa bateko kartoi errugabea hatzez
txikituz,
hatz horien azazkalak bidegabeki hozkatuz,
neguko putzuetan tu eginez,
udaberriaren joanaz axolagabe dirauten etxeetako
azal izurtsua
[ukabilez joaz,
han goian, teilatu-hodien zink ilunaren atzetik, ile
berdeak ageri dituen
[hiriko udaberria,
hauts bihurtzeko zorian dauden teilen materia
suntsikorrean arinki

[sustraitua.)

Hori egia da, hain egia
nola baita nire izenak hego zerutiarrak dituela,
ezeri ez dagokion nire izen goiaingeruzkoak:
Angel,
esaten didate,
eta ni jaiki egiten naiz
diziplinatu eta zuzen
hegoak hozkaturik
—esan nahi dut: azazkalak—
eta irribarre egin, eta isildu egiten naiz, zeren,
azken batean,
norbera jakitun baita
diren hitz guztiak alferrikakoak direla.

Neguko eta udako kantua

Ipar itsasoan negua denean,
uda da Valparaison.
Ontziek sirena jotzen dute Bremengo portuan
sartzean, soketan laino
[eta izotz piltzarrak daramatzatela,
bien bitartean balandro eguzkitsuek arrastaka
daramatzate Ozeano
[Baretik bainulari ederrak.

Hori aldi berean gertatzen da,
baina sekula ez egun berean.

Zeren, Ipar itsasoan eguna denean
—lanbroek eta itzalek
argi zikinaren hondakinak xurgatzen dituztela—
gaua baita Valparaison
—izar dirdaitsuek
uhin lokartuei gezi zorrotzak jaurtitzen dizkietela—.

Nolatan duda egin elkar maite izan genuela,
zure pentsamendua atzetik zebilkidala

hala nola nire ahotsa zure atzetik —haren ostean,
oso gertu, nire ahoa—.
Elkar maite izan genuen, egia, eta ondo dakit
zenbat:
udaberriak, udak, eguzkiak, ilargiak.

Baina sekula ez egun berean.

Lehendabiziko gogora ekartzea

Ondo gogoan
daukat
ama.
Haizearen beldurrez zen,
txikia
tamainaz,
trumoiek ikaratu egiten zuten,
eta beti gerren
beldurrez egoten zen
urrunetik,
kanpo arazoetarako ministro guztiek
sinatutako Ituna
azken aldiz
urratu baino lehen.

Gogoan daukat
nik ez nuela ulertzen.
Haizeak
txistuka zeramatzan
zuhaitzen hostoak,

eta kale-garbitzaile alai baten modukoa zen,
eta neskatilak uzten zituen
ilea harrotuta eta osorik,
zangoak biluzik eta errugabe.

Bestalde, gehiegizkoa zen
trumoiaren burrunba, ezinezkoa
ostots hura izurik gabe jasatea,
nahiz eta gero deus gertatu ez:
euriak tximistaren
marrazki bortitza ezabatu,
eta ostadarrak amaiera bukolikoa
jartzen zion hainbesteko zalapartari.

Gerra ere iritsi zen halako uda gaizto batez.
Eta gero bakea, negu are gaiztoago
baten ostean. Orduko hartan, ordea,
haizeak ez zuen eramandakoa itzuli.
Eta euriak ere
ezin izan zituen odolaren aztarnak ezabatu.
Galdutakoa betiko galdurik,
hildakoa atzean gelditu zen behin betiko
hilik.

Horregatik (eta beste hainbat gauzarengatik),
askotan gogoratzen naiz amarekin:

haizeak
gaueko kaleak bereganatzen dituenean:
ateak jo, eta ihes egin, eta kristal
eta abar hautsien arrasto bat
uzten du, hiriak, egunsentian,
atsekabez eta zurbil erakusten duena;

tximistak
airea arrailtzen duenean: zirtakatu,
eta lurrera erortzen da,
ikatz eta su ildoak marraztuz,
katuen bizkarrak laztuz
eta iparrorratzen iparra nahasiz;

eta, batez ere, gerra
hasi denean,
urrun —esaten digute—, eta txikia
—ez dago zertan kezkatu—, urrutiko
lurraldeak hilotz ñimiñoz estaliz,
hilketa urrunez, umezurtz txikiz...

Beti nahi duzuna

Dirua daukazunean, opari iezadazu eraztun bat;
ezer ez daukazunean, emadazu zure ahoaren txoko
bat;
zer egin ez dakizunean, zatoz nirekin
—baina gero ez esan zertan ari zaren ez dakizula.

Goizetan egur sortak sortzen dituzu
eta lore bihurtzen zaizkizu besoetan.
Nik petaloetatik eusten dizut;
mugitzen bazara, lurrina erauziko dizut.

Baina esan dizut lehen ere:
alde egin nahi duzunean, hemen duzu atea:
Angel du izena eta negarrera ematen du.

Hala ez zen sekula berriro izan

Txirikorda zeramanez,
txirikordatxo deitzen genion ostegun arratsaldeetan.
Haren gainean igotzera jolasten ginen, eta eramaten gintuen
sekula itzuliko ez ginen lurralde bitxi batera.

Utzi ezinezkoak baitira ia
haren ile zikinaren lur-usain hura,
haren belaun latzak, artean
azken erorikoaren hauts eta odolez,
eta, batez ere,
haren garondo nakar-kolorea, non gelditzen baitziren
argi tanta batzuk, jada argirik ez zegoela.

Han utzi ninduen udako egun batez
eta ez zen sekula berriz itzuli
nire pentsamendu logabea biltzera,
eta ordutik hona noraezean dabil haren besoetan,
bere ibilbidea zuzentzen, temati eta kontraesankor,

galdu den zuhaitzeko abarretik
irteten ez dakien inurria bezala.

Poema elegiako batzuetarako sarrera

Hitz multzo batzuk ezartzen ditut hemen.

Nire asmoa ez da, besterik gabe,
joandako egunen mausoleo iharra
keinu baliaezinez apaintzea; egun betiko
bertan behera utziak, noizbait gurea izan zen
eta jada sekula itzuliko ez garen
jauregi nahaspilatsu bateko gelen antzera.

Hitz horiek,
beren ezerezean

—gorpu maite batekin batera
lurperatutako arrosak bezala,
hark jada ezin baititu ikusi ez haien lurrinaz
gozatu—,

izan daitezela, behintzat,

denboraren joanak zimeldu,

eta haien esanahi iluna desegin, edo ezezagun
bihurtzen denean,

lekukotza —halakorik ahal balitz— betierekoa:

ez, gogora ekartzen duten ondasun galduarena;

ez eta, gaur, ilunpean uzten dituen
esku
jada ilunpean ezabatuarena ere,

baizik eta esku hori mugiarazi duen errukiarena.

Ezerezaren hilezkortasuna

Amodioan burututako guztia
ez da sekula harren balentria izango.

Itsasoaren hondakinek apenas jaten dituzten
lurrak azkenik
sekula
—ikusi baitzintuzten—
sekula guztiz irentsiko ez dituen begiak.

Nik irentsi zaitut zuk
irentsi nauzu
sute bakarrean.

Utikan kezkak:
sutan erre denak
ez du jada zertan denboraren beldur izan.

Guztiak dauka bere azalpena

Itxaropena —lehen hain prestua—
ez zaigu bisitan etorri aspaldion.

Azken aldian gogoa beste nonbait, antza.
Berandu ailegatzen zen beti, eta senide
dagoeneko lurperatuen izenekin deitzen zigun.
Garden uzten zuten begiz so egiten zigun,
osteko zilarbizia galtzen duten mirail horien antzera.
Esku benetan antzeman ezinez ukitzen gintuen,
eta atzamarkadaz josirik iratzartzen ginen.
Txanponak ere ematen zituen, nahiz eta gero
ezertarako balio izan ez.

Baina orain, ezta hori ere.
Hain aspalditik ez da etorri,
zera ere pentsatu nuen:
ez ote da hil?

Geroago ohartu nintzen
hildakoak gu geu ginela.

Poetika, noiz edo noiz betetzen saiatzen naizena

Poema bat idaztea: uraren azala markatzea.
Leun-leun, zeinuak
itxuragabetu eta handitu egiten dira;
haizekirriak, eguzkiak, hodeiek
nahi dutena adierazten dute;
nasaitu eta tenkatu egiten dira, eta azkenik
begira ari zaien gizonak
—haizea lokarturik,
argia goi-goian—
edo bere aurpegia ikusten du,
edo —gardentasun hutsa, sakoneko
porrota— ez du deus ikusten.

Agindua

(Beste batzuk betetzen saiatzen diren Poetika)

Poeta zuhurrek,
birjinek bezala —halakorik bazen garaian—,
ez dituzte begiak
izartegitik baztertu behar.
Oi, zu, gizakiei begiratzen diezun
arrotz ausart hori:
so egiezu izarrei!
(Denborari, ez Historiari.)
Ihes egin iezaiozu
argitasun likitsari.
(Cave canem)
Eta eraiki ezazu misterioa.
Izan zaitez aratza:
ez izendatu, ez argiztatu.
Zure hitz iluna isur dadin gauean,
ospel eta zentzurik gabea,
zure bizitzako unea bezalakoxea.

Kontragindua

(Egun jakin batzuetan alde agertzen natzaion Poetika)

Hau poema bat da.

Hemen zilegi da
afixak itsastea,
hondakinak botatzea, puxika hustea
eta honelako esaldiak idaztea:

Maritxua irakurtzen duena,
Irma maite dut,
*Akabatu… (*isilunea*),*
Harea dohainik,
Hiltzaileak,
eta abar.

Hau poema bat da.
Eutsiozu zikin ahapaldiari.
Tu egizu haren barruan.

Erantzule, amaitzen ez den arratsaldea,

egun honetako asperkizuna,
denboraren ergelkeria deformaezina.

Poetika 4

Poesia zu zeu zara,
esan zuen poeta batek
—eta orduko hartan egia zen—
Orotariko Hiztegiari begira.

Poesiari

Esanda daude jada gauzarik ilunenak.
Baita distiratsuenak ere.
Josi dira jada ile, zeta eta urre bezalako
hitzak txirikorda berean
—zure bizkar gardenaren apaingarri—.
Orain,
hain zaude eder,
orraztu berritan,
zugan maiteen dudana hartu nahi baitut.
Hartu nahi dizut
—zahar eta pobre naizen arren—
ez urrea eta ez zeta:
ezpada zure ile soil, fresko,
(kartsuki) aratz, lurrindu,
(sutsuki) arin, leuna.
Eta kalera atera nahi zaitut,
ilea harroturik,
haizean kulunka
—aske, deslai, bere kasa—
zure adats iluna,
barre-algara luze eta beltz baten gisan.

Heraklitori glosak

1

Inor ez da bi aldiz erreka berean bainatzen.
Guztiz behartsuak izan ezik.

2

Dialektikoenak, izugarri aberatsak:
ez dira sekula bi aldiz bainatzen
bainujantzi berean.

3

(Txinerara itzulita.)

Inor ez da bi aldiz eleka-meleka berean sartzen.
(Marxista-leninistak izan ezik.)

4

(Ezkorraren interpretazioa.)

Ezer ez da berdin, ezerk
ez dirau.
Salbu eta
Historiak eta nire herriko odolosteak:

biak odolez egiten dira, biak berriz etortzen.

Yarg Nairod

Bazter guztietan
—kale eta bulegoetan, taberna eta kuarteletan—
haren erretratu martzial, gazte, tentea.
Bien bitartean,
bera zimurrez eta orbanez betetzen da,
bere jauregian ezkutatua.

Datu biografikoa

Madrilen nagoenean,
etxeko labezomorroek protesta egiten dute gauez
irakurtzen dudalako.
Argiak gordelekuetatik irteteko gogoa kentzen die,
eta, hala, aukera galtzen dute nire logelatik
paseoan ibiltzeko,
leku horrek
—arrazoi ilunak direla eta—
erakarpen ezin eutsizkoa sortzen baitie.
Orain aipatzen ari dira errepublikako presidenteari
kexu-idatzi bat aurkeztea,
eta neure artean galdera egiten dut:
zein lurraldetan uste dute bizi direla?;
labezomorro hauek ez dute egunkaririk irakurtzen.

Gogoko dute, ordea, mozkor nadin,
eta goizaldera arte tangoak dantza ditzadan,
hartara arriskurik batere gabe ari baitaitezke
zokomiran ibiltze etengabe eta zentzugabean, itsu-
itsuan
nire etzalekuko baldosa zabaletan barrena.

Batzuetan atsegina ematen diet,
ez haien desioak kontuan hartzen ditudalako,
ezpada, arrazoi ilunak direla eta,
erakarpen ezin eutsizkoa sortzen didatelako
oso gaizki argiztaturiko leku jakin batzuek;
han berandutzen zait, aurrez erabakitako asmorik
gabe,
harik eta, sortzean, eguzkiak egun berria iragartzen
duen arte.

Etxera itzuli eta
pasabidetik haien gorputz ttipiekin gurutzatzen
naizenean,
baldarki eta beldurrez
bizileku dituzten zirrikitu ospeletarantz ihesean
doazela,
gau ona opatzen diet desgaraiz
—baina bihotzez, benetan—,
eta neure buruarengan haien segurtasun eza
antzematen dut,
haien desordukeria,
haien fotofobia,

eta beste joera eta jarrera asko; joera eta
jarrerok —lastimagarri zait esan beharra—
ez dute gauza on askorik azaltzen ortoptero horien
alde.

Joan da eguna

Orain beste lurralde batzuetan ibiliko da,
urrutira eramanez argiak eta itxaropenak,
urrutiko txorien saldoak haizatzen,
eta zurrumurruak, eta hotsak, eta ezkilak
—ate bilduen aurrean buztanari eragin
eta zaunka egiten duen zakur zaratatsua.

(Bien bitartean, gaua, katu
isil baten antzera, leihotik sartu zen;
argi zurbil hotzaren hondar batzuk ikusi,
eta azken kikara edan zuen.)

Bai;
egunak alde egin du, zalantzarik gabe.
Askorik ez zuen eraman (ez zuen deus ekarri);
denbora apur bat hortz artean,
argi nekatuen artalde labur bat.
Negarrik ez, hala ere. Ordu-orduan eta geldigaitz,
bihar itzuliko da, dudarik ez.
Katu beltz hori uxatuko du.
Zaunka egingo du ohetik ateratzen nauen arte.

Baina ez da berdina izango. Beste egun bat izango da.

Arraza bereko beste txakur bat.

Baliteke

Gaur osteguna dela esaten didate.

Ziurtasun txiki hori
ez du ezerk egiaztatzen:
ez eguzkiak —ahul eta
koloregabe— kristaletan,
ez urrutian abar lausoak
kulunkatzen dituen haize gozoak,
ez zer gertatzen ari ote den begira jartzen naizen
nagitasun geldo
nahigabetuak.

Kalera irten, eta begiratzen dut
ulertu gabe.
Zer dute, bada, aurpegi horiek
edozein asteartetan ezin burura daitekeenik?
Akazia margulduaren inguruan suman dabilen
txakurra,
ez al da atzoko txakur bera, zoritxarrez?

Beste batzuk dira tematzen.
Gaur osteguna dela esaten didate.

Horrelakoak izan ziren

Goiza
—egunkari paperezko
tigre hori—
orroka daukat esku artean.

Zalantzazko eta erabaki ezinik,
aharrausi luze batean
ahutz suminkorrak erakutsi,
eta jaiki egiten da:

ibaietan edatera doa,
bere bizar odoltsuekin gorriz tindatzera.
Gero haranerantz jotzen du bizkor.

Hirurak puntuan jada;
badirudi argiak, atzapar barneragarri horrek,
bertan behera uzten duela bere harrapakina.

Baina hori,
nork daki?

Otseme baten gisan
uzkurturik,
ilunabar-argia zain dago
ilargia noiz aterako
luzaroan ulu egiteko.

Horrelakoak izan ziren gogoan ditudan egunak.

Besteak,
atzenduta ditudanak
—horrenbeste urte ditut jada!—
ihesi joan ziren larri zauritutako orkatz-emeen
antzera.

[ilunabar-argi esaten diogun hori]

Ilunabar-argi esaten diogun hori,
ez al da egunaren lotsa-gorritze iragankorra,
errudun sentitzen baita
izandako guztiaz
—eta izan ez denaz?

Egun iheskor horrek,
gaizkile baten gisan,
iluntasuna baliatzen du alde egiteko.

Velazquez-en Kristoa

Banderillero nakarra.
Loaren xerloek estaltzen dizute eskuineko begia.
Lo geratu zinen besoak gora,
eta Jainkoaren adar-ukaldi batek zeharkatu dizu
bularra.

Pintzel errukitsu batek garbitu zizun
argi kotoi arinez haragi zauritua,
eta berriz ausartzen da biziaren itxura
zure larruazalean azaltzera.

Ez zenuen heriotza saihestu. Ezin izan zenuen.
Adarrak eta pintzelak, elkar harturik,
egiaztaturik utzi zuten zure porrota.

Abentura zentzugabe, eder eta tristea izan zen;
zaleak oraindik ere jartzen ditu dardarka:
hura adarkada, Jainko maitea, hura adarkada!

Horrek azaltzen du guztia

Jaungoikoa bera ere ez da gauza Unibertsoa astebetean sortzeko.

Zazpigarren egunean ez zuen atseden hartu.

Zazpigarren egunean nekatu egin zen.

Kristoren gonbidapena

Hala esan zuen:

Jan ezazue, hau duzue nire gorputza.

Edan ezazue, hau duzue nire odola.

Eta haren ingurua bete zen milaka
hienaz,
banpiroz.

Hildakoen aurkako irain-idatzia

Hildakoak berekoiak dira:
besteri negar eragin, eta ez zaie axola;
geldi-geldi geratzen dira lekurik desegokienetan;
ez dute ibili nahi, lepoan
eraman behar dira hilobira,
haurrak balira bezala, zeinen astunak.
Sekula baino zurrunago, haien aurpegiek
zerbaiten errua egozten digute, edo abisu egiten;
kontzientzia txarra dira, etsenplu txarra,
gure bizitzako txarrena haiek dira beti, beti.
Hildakoek duten gauzarik txarrena,
haiek hiltzeko modurik ez dagoela.
Horrexegatik da kalkulaezina
haien jardun suntsitzaile etengabea.
Sorgortuak, urrunak, tematiak, hotzak,
beren lotsagabekeria eta isiltasunarekin,
ez dira ohartzen zertzuk desegiten dituzten.

Jakitunak campusean

Direnak dira.

Bareak, egonarritsuak, talde
txikitan harat-honat
lorategi esparruan,
ikus itzazue.
Edo, are hobeto, entzun iezaiezue:

zientzia lausoa egozten dute marruka,
Plinioren orriz
eta letxuga hostoz bazkatzen dira;
hanburgesak irensten dituzte,
testu grekoak,
sanskritozko testikulu ñimiñoak;
eta gero
lurra ongarritzen dute
detritu klasikoekin:
alma mater.

Korrok egiten badute,
orro eruditu batek

jakinduriaz lurrintzen du campusa.

Isilean, gogoeta egiten badute,
ezin argituzko silogismoek, bizkor,
unibertso aratz bat argiztatuz,
zeharkatzen dituzte haien neurona akituak.
Erantzuna bilatzen dute
—begirada etorkizunean galdurik—
betiereko
enigmetarako:
Zer soldata izango dut hemendik urtebetera?
Osteguna al da gaur?
Zenbat
denbora beharko du lurmentzeko honenbeste elur?

Hala dirudi

Literatur kritikariek errealista naizela leporatzen
didate;
nire senideek, ordea, kontrako akatsa
aurpegiratzen:
haien ustez ez daukat
errealitatearen zentzu txikienik ere.
Zalantzarik gabe,
ikuskizun zorigaiztokoa natzaie:
testu aztertzaileak, probintzietako senideak,
guztiak desengainatu ditut, itxura denez:
zer egingo zaio, bada!

Kasu batzuk aipatuko ditut:

izeba elizkoi batzuk, eutsi ezinik,
negarrez hasten dira niri begiratzean.
Askoz lotsatiagoak, beste batzuek
arroz esnea egiten didate,
haurra nintzenean bezala,
eta, damuturik, irribarre egiten dute, eta esaten:
zeinen luzea zaren,

aitak ikusiko bazintu…
eta etenda geratzen dira, zer besterik esan ez
dakitela.

Hala ere, ondotxo dakit
haien keinu anbiguoek
erruki zintzo erremediorik gabea
ezkutatzen dutela:
errukia haien begiradan ageri da dizdizka,
eta haien untxi hortzorde gupidatsuetan.

Eta ez dira bakarrak.

Gauez,
Clotilde izeba zaharra hilobitik itzultzen da:
bere esku ihartuak nire aurpegi aurrean astindu,
eta doinu ohartarazlean errepikatzen dit:
Edertasunak ez dizu jaten emango! Zer uste duzu
dela bizitza?

Ama zenak,
aldiz, bere ahots mehe tristeaz,
nire bizitzaren amaiera negargarria iragartzen du:
eroetxeak, zahar etxeak, burusoiltasuna,
blenorragia.

Nik ez dakit zer esan ahal diedan,
eta isiltasunera itzultzen dira.
Orduan bezala.
Haurra nintzenean bezalaxe.

Badirudi
ez dela heriotza gure gainetik pasa.

Artritis metafisikoa

Beti emakumeren batek eraman ninduen sudurretik
(beste apendize batzuk ez aipatzeagatik).

Eraztuna jarritako
tximino baten gisan,
ohez ohe jardun nuen jauzika.

Zenbat kilimusi alai,
zer oreka-jolas altu eta zailak,
zeinen akrobazia zaluak,
zer-nolako barreak!

Ikuskizun irrigarria bazen ere,
izan zen nire itzulipurdiekin dolutu zenik,
gauza ez batere harritzekoa:
halako trantzean
neuri ere
bihotza erdiratu zitzaidan behin baino gehiagotan.

Pena da kolpe haiek,
orduan, hegaldiaren bozkarioari emanak,

ia sentitu ez genituen kolpe haiek,
orain, arratsalde batzuetan,
udazkenean,
euri zantzuak airean,
eta hotza datorrela,
ariman berriz hain mingarriak izatea;
min berritu horrek ez uztea
etendako loa berriro hartzen.

Gauzak horrela, ez dago aringarririk:
ez nostalgiaren ukendu itxurazkoa,
ez ahanzturaren kontsolagarri irmoagoa.

Eskerrak eskeletoa atxikitzen dudan oraindik

Non egongo ote dira dentistak umetan
erauzi zizkidan hortz-haginak?
Haien izaera karetsua-edo dela eta,
ziur ez zituztela harrek jango.

Beldur bainaiz ez ote diren egongo,
ilusioz beterik, edozein zabortegitan zain
haragiaren piztuera noiz iritsiko
azkenik nire hortzoietan berriz txertatzeko.

Are beldurrago naiz ez ote diren,
egun txarren batean, hemendik milioika urtera,
beste galaxia bateko arkeologo baten eskuetan
eroriko,
eta probintzia-museo batean amaituko,
plastikozko orrazi eta sardina-ontzi herdoilduen
artean,
Aro baten (niretzat bizitza osoaren)
lekukotza engainagarri gisa,
etorkizunean ezer gutxi jakingo baitute Aro haren

gainean.

(Aro hura norbera bizi izatekoa baitzen
—egoera hobean, noski—,
eta hala eta guztiz ere ez da ulergarri.)

Ulergarri da,
beraz
—halabeharrez usteltzera
eta ahanzturara bideratuta nagoenez—,

lo galduko gauetan estu eta larri galdetzea:

Non egongo ote dira dentistak umetan
erauzi zizkidan hortz-haginak?

Konformistarena

Gaztetxo nintzela, hiri handi batean bizi nahi izan nuen.

Gaztetasuna galdurik, hiri txiki batean bizi nahi izan nuen.

Orain, berriz, bizi egin nahi dut.

Egon geldi

Utz ezazu biharko
(atzo, ez jakin nola, hasi eta)
gaur egin zenezakeena.

Eta bihar, bihar izan dadila betiko;

nagitasunak amaitu gabe utz dezala
iragankor izateko egina dena;
ez dezala denborak esku hartu,
ez dezala materiarik izan anker jokatzeko.

Eragotz ezazu suntsi zaitzan bihar
zerorrek, atzo, egin gabe
utzi zenezakeen guztiak.

Joankor da maitasun oro

Ez zen zu bezalako neska ederrik
maite zintudan une iheskor hartan:
nire bizitza
osoa.

Ba al dakizu paper batek...?

Ba al dakizu paper batek labana batek bezala ebaki dezakeela?

Paper zuri huts,
gutun idatzi gabe batek

odoletan jartzen nau gaur.

Udazkena hurrean

Zarata gutxirekin hurreratzen da udazkena:
txitxar motelek, kilker bakan batzuek
defendatzen dute
irauten tematzen den uda baten gotorlekua.
Balirudike hemen ez dela deus gertatzen,
baina bat-bateko isilune batek argiztatzen du
miraria:
aingeru bat
igaro da,
argi, edo su, edo bizitza izenekoa.
Eta betiko galdu genuen.

Nahi izan nuen

Munduari begiratu nahi izan nion
zure begi berri, liluratuez,
hondoan berde,
udaberria bezain.
Itxaropenez beterik, zure gorputzean sartu nintzen,
horrenbeste mirari miresteko, zure
begi-ninietako behatoki argitik.
Eta, azken batean, zuk zeuk ikusi zenuen
munduaren porrota neure begi-niniez.

Bertso amebeoak

I

Goiz batzuetan ez naiz ausartzen gau-mahaitxoaren
tiradera irekitzen,
neure buruari tiro egin beharko niokeen pistola
aurkitzeko beldurrez.
Azken aldian gauek literalki dilindan jartzen naute,
eta egunsentiak gainera oldartzen zaizkit txakur
amorratuen gisa,
neure baitako zatiak erauzten,
bihotza suminez bilatzen didatela.
Argiak haserretu baino ez ditu egiten txakur
erotuok:
ez dira hain zehatz goizak,
goizek munduratzen edo eragiten duten horixe
baizik:
hortz horituen memoria,
ahutz herratsuen ausikia,
hats izoztu eta hilgarriaren beldurra.

Goiz batzuek ez lukete sekula argitu behar,

argiak ez dezan iratzarri lo zegoena,
lotan hobeto legokeena,
eta, ametsetan ere, beilatu, jazarri, zauritzen duena.

II

Horra non, gauaren ostean,
iristen zaren, eguna.
Kolpa ezazu gaur zure argi-aldaba handiarekin nire bularra,
sar zaitez zure espazio urdin guztiarekin nire bihotz goibelean.
Hegalda daitezen nire ariman lokarturiko txoriak,
bete dezaten beren iskanbila alaiaz munduko goiza,
nire mundu —igandeetan,
eta esan ezineko isilpekoak
gorde beharreko jaietan—
itxia.

Egin bedi gaur nire baitan zure gardentasuna,
izan nadin ni zure argitasunean.
Eta dena itzul dadin orduan bezala izatera,
zu iristea

loaren amaiera ez zenean,
ezpada haren agerkunde liluragarria.

Gaur

Animaliatik,
ornodunetik,
ugaztunetik daukadan guztia
atsegin handiko lotsagabekeriaz jabetzen da gaur
nitaz.
Gaur ez daukat adimenik, eta pozten naiz.
Zertarako nuke,
hondamendi jakin batzuk balioztatzeko baino?
Pentsatzen dut, beraz, banaiz,
nahiz ondo kostata izan, neke handiz.

Hauxe naiz
—esaten du, ia irrintzika, erronkari, ene gorputzak—
,
hauxe baino ez:
laueskuduna edo hazbakarra,
eta beste ezer gutxi: sedentarioa, gautarra.

Adorerik baneuka oraindik, trostan ibiliko nintzateke
zaldi gazte baten modura ilbetearen pean.
Baina indarrik ez:

ehun urtetik gorako elefante baten antzera
—ornodun, ugaztun—,
itzulerarik gabeko bidezidor batetik, banoa.

Oso ausarta izan behar da

Oso ausarta izan behar da beldurrez bizi izateko.
Pentsatu ohi denaz bestera,
beldurra ez da beti koldarren kontua.
Izan ere, beldurrak akabatzen bizi izateko,
ausardia handia eduki beharra dago.

Hondamendiaren anbiguotasuna

Galdua zuen guztia:
maitasuna, familia, ondasunak, itxaropenak.
Eta bere kabutan esaten zuen, tristurarik gabe:
ez al da ederra, azkenik, beldur barik bizi izatea?